# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 4951

*EBAZPENA, 2022ko azaroaren 3koa, Kulturako sailburuordearena, 2022. eta 2023. urteetan Euskal Kultura Ondarea babesteko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak emateko dena.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko ekainaren 8ko Aginduaren bidez (ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 117. zk.), 2022. eta 2023. urteetan Euskal Kultura Ondarea babesteko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia arautzen da.

Eskabideak aztertu ondoren, eta deialdiaren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Balorazio Batzordeak, 2022ko abuztuaren 4an egindako bileran, dirulaguntzak emateko proposamena egin zuen.

Horregatik guztiagatik, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta aipatutako aginduaren 17. artikuluarekin eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoekin.

Bigarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren pertsonei, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean zehaztutako eskabideak ez onartzea, bertan azaldutako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan oro har indarrean dauden gainerako baldintza guztiak ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako proiektuek 2022ko ekitaldian hasita egon beharko dute, edo ekitaldi horren barruan hasi beharko dute. Amaitzeko epearen azken eguna 2023ko urriaren 25a izango da, eta ezin izango da gauzatzeko epea data horietatik aurrera atzeratu edo luzatu.

Seigarrena.– Dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honela ordainduko da dirulaguntza:

A) Lehenengo ordainketan dirulaguntzaren % 50 ordainduko da, dirulaguntza ematen den unean, berariaz uko egiten ez bazaio.

B) Gainerako % 50a gastua justifikatu ondoren ordainduko da, dirulaguntzaren indarraldia amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.– Emandako dirulaguntzak Aginduaren 21. eta 23. artikuluetan xedatutakoaren arabera justifikatu eta likidatuko dira. Nolanahi ere, justifikazio-agiriak aurkezteko azken eguna 2022ko azaroaren 6 da, egun hori barne.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikuluaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, pertsona eta erakunde interesdunek ebazpen honen jakinarazpena jaso edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 3a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

# I. ERANSKINA

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

| Eskatzailea | Esp. kod. | Proiektuaren izenburua | Dirulaguntz aren diru-kopurua | 1. ordainketa (2022) | 2. ordainketa (2023) |
|---|---|---|---|---|---|
| Alberdi Lonbide, Xabier | 015-KOI-2022 | Investigación arqueológica para la documentación de la evolución tecnológica de la siderurgia del hierro entre la Edad del Hierro y la época romana en el extremo nororiental de Álava (Aramaio,Legutio) | 12.204 | 6.102 | 6.102 |
| Aldasoro Zabala, Aloña | 021-KOI-2022 | Conservacion de restos esqueleticos de contextos arqueologicos: importancia de la metodología de la toma de muestras | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Apraiz Sahagun, Amaya | 011-KOI-2022 | Arqueologización de los espacios y elementos patrimoniales industriales | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Cilla López, Raquel | 008-KOI-2022 | Catalogación y valoración patrimonial del arte mueble en las ermitas de Bizkaia (ermitas declaradas o susceptibles de ser declaradas BIC) | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Díez Oronoz, Aritz | 006-KOI-2022 | Estudio histórico de las casas de pescadores tradicionales del litoral vasco | 12.390 | 6.195 | 6.195 |
| García Gómez, Ismael | 019-KOI-2022 | Arqueoastronomía del románico alavés. Análisis estratigráfico y técnicas matemático-estadísticas para una determinación precisa de la fecha de construcción de los templos de ese período. | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Gómez Díez, Francisco | 016-KOI-2022 | Ni un vasco sin pan: estudio histórico-arqueológico del patrimonio de la Red Nacional de Silos y Graneros en el Territorio Histórico de Araba/Álava. | 12.300 | 6.150 | 6.150 |
| Hidalgo Masa, Jagoba | 012-KOI-2022 | Patrones de poblamiento de la Edad del Hierro en la Euskadi atlántica. Fase II. | 9.400 | 4.700 | 4.700 |
| Martín Echebarria, Gorka | 003-KOI-2022 | De Wellington a Espartero. Arqueología de los campos de batalla a inicios del siglo XIX | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Martínez Montecelo, Ángel | 005-KOI-2022 | «El bosque y las ramas: protocolo para la lectura del paisaje forestal con una perspectiva histórica y arqueológica» | 13.800 | 6.900 | 6.900 |
| Muniategiandikoetxea Markiegi, Jon | 014-KOI-2022 | Eremu ahaztuak.Lorategi historikoak | 9.906 | 4.953 | 4.953 |

| Eskatzailea | Esp. kod. | Proiektuaren izenburua | Dirulaguntz aren diru-kopurua | 1. ordainketa (2022) | 2. ordainketa (2023) |
|---|---|---|---|---|---|
| Narbarte Hernández, Josu | 010-KOI-2022 | Erriberak: paisajes culturales de expansión agraria en los estuarios de la costa vasca | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Sanchez Zufiaurre, Leandro | 018-KOI-2022 | Las terrazas de cultivo de Rioja Alavesa. Cronotipología y datación del paisaje del vino | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| Solaun Bustinza, José Luis | 004-KOI-2022 | De castillo feudal a fuerte de las Guerras Carlistas. La transformación de la arquitectura militar en el siglo XIX | 15.000 | 7.500 | 7.500 |
| | | GUZTIRA | 190.000 | 95.000 | 95.000 |

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKAERAK

| Eskatzailea | Esp. kod. | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|---|
| Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia | 017-KOI-2022 | Tipos de propiedad de los bienes inmuebles de patrimonio histórico-artístico en la diócesis de Bilbao: aproximación a su evolución | (1) |
| Fernández Carbajal, José Ángel | 013-KOI-2022 | El Casco Histórico de Bilbao desde la arqueología: Estudio, análisis y diagnóstico de la estratigráfica urbana del Casco Histórico | (1) |
| Herrero Acosta, Xabier | 007-KOI-2022 | Un país surcado de fuertes. Inventario patrimonial de las líneas fortificadas de la última guerra carlista. | (2) |
| Matés Luque, José Manuel | 020-KOI-2022 | Excavando embarcaciones en la zona intermareal | (2) |
| Romano Vallejo, María | 002-KOI-2022 | Mecenazgo femenino en la edad contemporánea. Claves para la puesta en valor del patrimonio cultural. | (1) |

(1) Lortutako puntuazioak ez dauka dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxienekoa (Aginduaren 15.1 artikulua).

(2) 15. artikuluan ezarritako gutxienekoaren pareko puntuazioa edo handiagoa lortu du, baina erabilgarri dagoen partida ez da iristen dirulaguntza emateko.

# III. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKAERAK

| Eskatzailea | Esp. kod. | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|---|
| Aranzadi Zientzi Elkartea | 009-KOI-2021 | Itzak. Proyecto de puesta en valor del Patrimonio Cultural Costero en el Estuario de Urdaibai | (1) |

(1) Eskatutako dirulaguntzaren xede den jarduerak ez du betetzen dirulaguntza hauen xedea (Aginduaren 2. artikulua).